



**Arartekoaren 2018R-2198-16 Ebazpena, 2018ko urriaren 22koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari gomendatzen zaio berrazter dezala "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan inskribatutako espediente bati aitortutako puntuazioa.**

### Aurrekariak

1. Herritar batek kexa bat aurkeztu zuen ez zegoelako ados Bizkaiko Etxebizitzako lurralde-ordezkariek "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan inskribatutako espediente bati aitortu zion puntuazioarekin. Arartekoak izapidetzeko onartu zuen kexa hori.

Interesdunak bere kexa-idazkian azaldu zuen alarguna zela, eta guraso bakarreko bizikidetz-unitatea osatzen zuela bere ardurapeko adin nagusiko bi alabekin batera. Horrez gain, adierazi zuen gutxi gorabehera 9 urte zeramatzala "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan izena emanda, eta artean ez ziotela etxebizitzarik esleitu. Azkenik, aipatu zuen adin nagusiko bi alabak unibertsitate-ikasketak egiten ari zirela.

Horri lotuta, kexagileak esan zuen, bizikidetz-unitatearen ezaugarri bereziak eta etxebizitza-premia aintzat hartuta, espedienteari aitortu zioten puntuazioaren berri emateko eskatu zuela.

Horri erantzunez, Bizkaiko Etxebizitzako lurralde-ordezkaritzak espedientearen guztirako puntuazioaren berri eman zion. Hala ere, kexagileak adierazi zuen ez zetorrela bat aitortu zioten puntuazioarekin. Izan ere, hauteman zuen 10 puntu kendu zizkietela jo zutelako ez zuela osatzen guraso bakarreko familia-unitate bat. Zehazki, puntu horiek kendu zizkieten, ohartu zirelako alabetako batek adin-nagusitasuna eskuratu zuela.

2. Kexagilea ez zegoen ados espedientearen puntuazioa gutxitu izanarekin, eta, hortaz, erreklamazio formal bat aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailean.

Kexagileak, Espainiako Errege Akademiaren guraso bakarreko familiaren definizioa<sup>6</sup> jaso zuen bere idazkian, eta berriz ere esan zuen ez zetorrela bat sailak horri buruz egindako interpretazioarekin.

Horri erantzunez, sailak honako hau adierazi zion kexagileari:

---

<sup>6</sup> **Espainiako Errege Akademiaren hiztegia.** "Monoparental: Dicho de una familia: Que está formada solo por el padre o la madre y los hijos." [Linean eskuragarri]: <http://dle.rae.es/?id=PgyfgPH>

*“La normativa de vivienda, concretamente en los criterios de baremación para la adjudicación de viviendas, establece que se otorgarán 10 puntos por formar parte de alguno de los colectivos con especial necesidad de vivienda, entre los que se encuentran las familias monoparentales. No hace alusión expresa a que los hijos hayan de ser menores de edad; sin embargo, siguiendo el criterio inspirador de otras regulaciones (...), únicamente se computan estos 10 puntos mientras los hijos sean menores de edad y sigan dependiendo del padre o la madre.”*

3. Azaldutako egitateak ikusita, Arartekoak lankidetzeta-eskaera bat igorri zion Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari.

Arartekoak, bere idazkian, adierazi zuen kexagilea ez zegoela ados hartutako erabakiarekin. Gainera, eskatu zuen txosten bat helarazteko, eta han azaltzeko zer arrazoi juridiko zirela-eta kendu zizkieten 10 puntu horiek kexagilearen espedienteari, eta iritzia emateko sail horretan mahaigaineratutako gaiari lotuta aplikatutako irizpideei buruz.

4. Horri lotuta, Arartekoak informazio-eskaera bat bidali zion Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari, Familia Politika eta Aniztasunaren Zuzendaritzak informazio interesgarria helaraz zezan, aurkeztutako kexa behar bezala izapidetu ahal izateko.

5. Horri erantzunez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren txosten bat jaso genuen erakunde honen erregistroan. Horren bidez, sail horrek bere erabakia berretsi zuen, bestelako oinarri juridikorik aipatu gabe.

Eusko Jaurlaritzako Familia Politika eta Aniztasunaren Zuzendaritzak, berriz, txosten oso bat igorri zuen, eta, horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren iritzia eman zuen.

6. Hortaz, beharrezko egitateak eta zuzenbide-elementuak ditugula uste dugunez, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

#### Gogoetak

1. Duela hamarkada batzuetatik, bai 1948ko abenduaren 10eko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak (25.1. artikulua), bai 1966ko abenduaren 16ko Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Itunak (11.1. artikulua) eta bai 2000ko abenduaren 7an Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak onetsitako Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunak (34.3. artikulua) azpimarratu izan dute etxebizitzak alderdi soziala duela, pertsonen eta beren familien bizi-baldintzak hobetzen dituelako.
2. Babes publikoko etxebizitza bat legez okupatu ahal izateko, nahitaez eman behar da izena “Etxebide” Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan.





Zentzu horretan, ekainaren 18ko 3/2015 Legearen 13. artikulua aurreikusten du Etxebizitza Babestuen eta Zuzkidura Bizitokiaren Eskatzaileen Erregistroa sortuko dela, eta horrek ordeztuko duela edo, hala badagokio, jarraipena emango diola aurretik existitzen zen administrazio-erregistroari. Erregistro horren helburua izango da etxebizitza babestuen eskatzaileak ezagutzea; halaber, babes publikoko etxebizitzaren esleipena kudeatzeko eta kontrolatzeko tresna izango da.

Bitartean, araudia garatuta ez dagoenez, "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroa da etxebizitza babestuen eskatzaileen kudeaketa eta kontrola egiteko lana egin behar duena.

3. Izan ere, zenbait betekizun eta betebeharrak bete behar dira "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan izena ahal izateko.

Horiek horrela, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzko Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduaren II. kapituluak (aurrerantzean, 2012ko urriaren 15eko Agindua) berariaz ezartzen du zein diren horiek eskuratzeko baldintza orokorrak eta zein izan behar den eskaera ororen eduki zehatza.

4. Abenduaren 12ko 13/2008 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Familiei Laguntzekoak, etxebizitzaren eta lurzoruaren arloan laguntzeko berariazko neurriak jasotzen ditu 18. artikuluan.

Zehazki, hauxe dio artikulua horrek:

- *"Oro har, bere etxebizitza-politikaren esparruan, Eusko Jaurlaritzak tratamendu berezia emango die adingabeko seme-alabak edo beren kasa moldatzen ez diren pertsonak beren ardurapean dituzten familiei, baita familia ugarietara eta egoera bereziki ahulean dauden familiei ere, hala nola guraso bakarrekoei..."*

Esanguratsua da Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko 2016ko Inkesta<sup>7</sup> jasotako guraso bakarrekoei familien zaurgarritasun bereziko egoeraren tratamendua.

Zehazki, egindako ikerketan honako hau adierazi zen:

- *. Seme-alabak dituzten familien taldeei begiratuta, 2014 eta 2016 urteen bitartean handitu egin da, ordea, benetako pobrezia guraso bakarrekoei*

<sup>7</sup> **Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.** Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko 2016ko Inkesta. 2017ko urtarrilaren 31ko emaitza nagusiak. [Linean eskuragarri]: [http://eu.eustat.eus/elementos/ele0014100/Pobrezia\\_eta\\_gizarte\\_desberdintasunei\\_buruzko\\_inkesta\\_PGDI-2016/inf0014126\\_e.pdf](http://eu.eustat.eus/elementos/ele0014100/Pobrezia_eta_gizarte_desberdintasunei_buruzko_inkesta_PGDI-2016/inf0014126_e.pdf)



*familiengan duen eragina, % 12,7tik % 13,4ra igaro baita (...) Guraso bakarreko familiek benetako pobrezia-aren banaketan duten presentzia % 23,6tik % 29,9ra igo da 2014 eta 2016 urteen bitartean. (...) Oro har hartuta, 2016. urtean, guraso bakarreko familiek eta seme-alabak dituzten bikoteek biltzen dute benetako pobrezia-kasuen % 72<sup>8</sup>.*

Testuinguru horretan bertan, **European Institute for Gender Equality** adierazi du emakumeak buru dituzten guraso bakarreko familien zaurgarritasun-egoerak kezkutzen duela; izan ere, honezkerok, Europar Batasuneko guraso bakarreko familia guztien % 85 dira<sup>9</sup>.

Hori guztia dela-eta, Arartekoak berriz ere dio euskal herri-administrazioek oztopoak kendu eta zaurgarritasun bereziko egoeran dauden familiei (besteak beste, guraso bakarreko familiei) laguntzeko neurri positiboak hartu behar dituztela.

5. Hizpide dugun gaiari dagokionez, agindu horren 51.1. artikulua xedatzen du zer baremazio-irizpideri jarraituko zaien "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan inskribatutako espedientei puntuazioa aitortzerakoan. Zehazki, e) apartatuak ezartzen du 10 puntu eman dakizkiokeela "**Etxebizitza-premia berezia**" irizpideari.

Horri lotuta, 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 2.f) artikulua arabera, honela egiaztatuko da inguruabar berezi hori betetzen dela:

- *"hauen titularretako bat kolektibo hauetako kidea den horiek: adimen- eta garapen-desgaitasuna duten pertsonak eta adimen-gaixotasuna dutenak, guraso bakarreko familiak, generoko indarkeriaren biktimak, legez dibortziatuak edo banatuak, gerora sortutako ordaintzeko ezinagatik ohiko etxebizitzaren jabetza galdu dutenak, 70 urtetik gorakoak eta 30 urtetik beherakoak".*

Aitzitik, 2012ko urriaren 15eko Aginduak ez du zehazten zer ezaugarri izan behar dituzten familia-unitateek guraso bakarreko familiazat hartzeko. Finean, ez du ezartzen zer berezitasun dituen ukitutako kolektiboak.

6. Arartekoak badaki Euskal Autonomia Erkidegoan ez dagoela lege-mailako araudirik, batetik, guraso bakarreko familiaren kontzeptua definitzen duenik, eta bestetik, ezartzen duenik zer baldintza bete behar dituzten bizikidetz-unitatea osatzen duten pertsonak guraso bakarreko familiazat jotzeko edo halakotzat hartzen jarrai dadin.

---

<sup>8</sup> Pobrezia-aren inkesta... op.cit., 46. Orr.

<sup>9</sup> **European Institute for Gender Equality**. Poverty, gender and lone parents in the EU. Review of the implementation of the Beijing Platform for Action. [Linean eskuragarri]: <https://eige.europa.eu/rdc/eige-publications/poverty-gender-and-lone-parents-eu>



Inguruabar horren berri eman dugu Eusko Legebiltzarrari helarazitako urteko txostenetan.<sup>10</sup> Horietan, Arartekoak behin baino gehiagotan adierazi du definitu eta zehaztu beharra dagoela zer betekizun bete behar dituen guraso bakarreko familiaren ereduak.

7. Azaldutakoa gorabehera, Eusko Jaurlaritzako Familia Politika eta Aniztasunaren Zuzendaritzak hau jakinarazi dio Arartekoari:

- *Horiek horrela, EAEko administrazio publiko bakoitza edo, hala egokitu gero, haien barruko administrazio-organo bakoitza, eskuduna da zehazteko zein den lortu nahi dituen xedeetarako egokientzat jotzen duen guraso bakarreko familiaren kontzeptua, aplikagarria izango dena bere eskumeneko gaietan edo kudeatu behar dituen politketan (adibidez, hezkuntza, garraioak, etxebizitza eta abar)”*

Horren ondorioz, ez denez legezko definiziorik eman, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak erabaki du bere jardueraren eremuan oro har erabiltzeko barne-irizpide bat ezartzea.

Gauzak horrela, barne-irizpide bat aplikatuz, erabaki du 10 puntu horiek aitortuko direla, bakarrik, amak edo aitak adingabeak baldin baditu bere ardurapean.

Hala ere, Arartekoari ez zaio egokia iruditzen euskal herri-administrazioa osatzen duen sail edo organo bakoitzak bere irizpidea izatea guraso bakarreko familiazat jotzeko baldintzei buruz.

8. Arartekoa ez dator bat Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailarekin. Izan ere, erakunde honek uste du, bizikidetzaren unitate batean dauden seme-alaben adina ezin dela izan unitate hori guraso bakarrekotzat jotzeko irizpide bakarra, eta horien mendekotasun ekonomikoa ere hartu behar dela kontuan.

Interpretazio hori, konparazioz, irailaren 29ko 151/2009 Dekretua du oinarri. Dekretu horrek Kataluniako Erkidegoko Familiei Laguntzeko uztailaren 4ko 18/2003 Legea garatzen du (lege horren 4.3 artikuluan esanbidez jasotzen da zein diren familia bat guraso bakarrekotzat jotzeko eta egoera horri eusteko bete behar diren baldintzak). Interesatzen zaigunari dagokionez, honako hau eskatzen da:

---

<sup>10</sup> **Arartekoa.** Batzuk aipatzearen: Eusko Legebiltzarrarentzako txostena, 2010. urtekoa, 264. or.; Eusko Legebiltzarrarentzako txostena, 2011. urtekoa, 287. or.; Eusko Legebiltzarrarentzako txostena, 2012. urtekoa, 172. or.; Eusko Legebiltzarrarentzako txostena, 2013. urtekoa, 182. eta 186. or. Eusko Legebiltzarrarentzako txostena, 2014. urtekoa, 206. or.; Eusko Legebiltzarrarentzako txostena, 2015. urtekoa, 203. or.; Eusko Legebiltzarrarentzako txostena, 2016. urtekoa, 210. or.; Eusko Legebiltzarrarentzako txostena, 2017. urtekoa, 205. or.

- *"a) Ser menores de 21 años, o tener una discapacidad o estar incapacitados para trabajar con independencia de su edad. Este límite de edad **se amplía hasta los 25 años cuando cursen estudios de educación universitaria** en sus distintos ciclos y modalidades, de formación profesional de grado superior, de enseñanzas especializadas de nivel equivalente a las universitarias o profesionales en centros sostenidos con fondos públicos o privados (...).*

*b) Convivir con la persona progenitora. Se entiende que la separación transitoria durante un período igual o inferior a dos años motivada por razón de estudios, trabajo, tratamiento médico, rehabilitación u otras causas similares, incluyendo los supuestos de fuerza mayor, privación de libertad de la persona progenitora o de los hijos o hijas o internamiento de acuerdo con la normativa reguladora de la responsabilidad penal de los menores no rompe la convivencia entre la persona progenitora y los hijos o hijas, aunque sea consecuencia de un traslado temporal al extranjero.*

*c) Dependier económicamente de la persona progenitora. Se considera que existe dependencia económica siempre y cuando los hijos o hijas no obtengan, cada uno de ellos, unos ingresos por rendimiento del trabajo superiores, en cómputo anual, al IRSC vigente"*

Horixe bera dio orain dela gutxi onetsitako 18/2018 Legeak, uztailaren 31koak, Balear Uharteetako Familiei Laguntzeari buruzkoak (7. artikulua).

Gainera, irizpide horixe bera erabiltzen da familia ugarien kasuan [Familia Ugariak babesteko azaroaren 18ko 40/2003 Legearen 3.1.a) artikulua eta abenduaren 30eko 1621/2005 Errege Dekretuaren —familia ugariak babesteko erregelamendua onartzen duena— 1. artikulua].

Aitzitik, eskatutako adina aldatu egin da, eta 19/2018 Dekretuak, martxoaren 9koak, Consellarenak, Valentziako Erkidegoan guraso bakarreko familien aitortza arautzen duenak, honako hau ezartzen du 3.1.a) artikuluko 1. apartatuan:

- *"Para que se reconozca y se mantenga la condición de familia monoparental o en situación de monoparentalidad, cada persona descendiente debe cumplir las condiciones siguientes:*

*Encontrarse en alguno de los siguientes supuestos:*

*Ser menor de 26 años"*

Laburbilduz, hauteman denez, beste autonomia-erkidego batzuetan, guraso bakarreko familien izaera ez dago zuzenean lotuta seme-alabak adingabeak izateari.

9. Eusko Jaurlaritzako Familia Politika eta Aniztasunaren Zuzendaritza ere iritzi berekoa da, eta hauxe adierazi dio Arartekoari, erakunde honen lankidetzak eskarari erantzunez:



*“... Arartekoak egindako kontsultaren xedean sakonduta, sail horiek uste du ez dela jarri behar guraso bakarreko familia izaten jarraitzea familia-unitatea osatzen duten semeek edo alabek adin-nagusitasuna betetzeko baldintzapean...”*

Izan ere, familia eta lana uztartzeari dagokionez, ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren 9.5. artikulua (martxoaren 17ko 31/2015 Dekretuak aldatutakoa) honela definitzen du guraso bakarreko familia:

*“... eszedentzia edo lanaldi-murrizketa eskatu duen aitak edo amak eta horrekin bizi diren seme-alabek osatzen dutena, horiek ekonomikoki pertsona bakar horren mende daudenean*

Kasu honetan, guraso bakarreko familia-unitatetzat jotzea dakarren betekizuna da seme-alabak ekonomikoki independenteak izatea aurreko ahaidearekiko. Eta egoera hori luza daiteke adingabe izateari utzi ondoren ere.

10. Azaldutako guztiagatik, Arartekoaren iritziz, bizikidetza-unitate bat zaugarritasun bereziko egoeran dagoela (guraso bakarreko familia delako, esaterako) aitortze aldera irizpide desberdinak erabiltzeak —interesdunak zer herri-administrazio edo administrazio-organotara jo duen— ziurgabetasun juridikoa eragiten du.

Hori dela-eta, Arartekoaren ustez, definizio generikorik ezean, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak aitortu behar luke guraso bakarreko familiak zaugarritasun bereziko egoeran daudela, eta aintzat hartu behar lituzke Eusko Jaurlaritzako Familia Politika eta Aniztasunaren Zuzendaritzak emandako orientabideak. Zehazki, sail horrek bere barne-irizpidea aldatu behar luke, bizikidetza-unitateko seme-alabek adin nagusitasuna eskuratzea ez dadin erabakigarria izan familia guraso bakarrekotzat jotzen jarraitzeari dagokionez, betiere egiaztatuz gero horiek aurreko ahaidearekiko mendekotasun ekonomikoa dutela.

Gainera, beste garai batzuetan, adin nagusikoa izateak nolabaiteko beregaintasun ekonomikoa zekarren, baina gaur egungo errealitatea oso bestelakoa da, gazteen ikastaldia, gehienetan, 18 urteraino baino askoz gehiago luzatzen delako.

Hori guztia dela-eta, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11.b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, Arartekoak honako gomendio hau egin nahi du:





## GOMENDIOA

Adierazitakoa aintzat hartuta, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak berriz azter dezala kexagilearen espedienteari, "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan inskribatutakoari, aitortutako puntuazioa.

Horrenbestez, azaldutako betekizunak betetzen baldin baditu, aitor diezazkiola 10 puntuak; izan ere, etxebizitza-premia berezia duela joko da.

Nolanahi ere, Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari gomendatzen dio ezen, ebazpen honetan egindako gogoetak aintzat hartuta, berrazter dezala bizikidetzta-unitateak guraso bakarrekotzat jotzeko erabiltzen duen barne-irizpidea.

